

Herrian agertu artikulua, Aljeriako soldadoek igorririk



Xipri **A**rbelbide **M**endiburu*

Aljeriako gerlan parte hartu zuten iparraldeko gazte guztiek, soldadogoa, garai hortan egiten zuten. Herritik urrun, bainan herria gogoan. Hango berriak, bai eta gogoetak igortzen zituzten honara, Herria astekariaren bidez, askotan bertsutan. Hemen ikusiko dituzue gutun horien pasarte batzu. Ohargarria da, askotan euskar ederre eta abertatsa dutela.

Giltza-Hitzak: Aljeria. Gerla. Euskaldun gazteak. Herria astekaria.

Todos los jóvenes de Iparralde que tomaron parte en la guerra de Argelia hicieron entonces su servicio militar. Lejos de su pueblo, pero llevándolo en su pensamiento. Hacían llegar sus noticias, y también sus pensamientos, por medio del semanario Herria, en verso en muchas ocasiones. Aquí podrán ver algunos pasajes de aquellas cartas. Es de señalar, el hermoso y rico euskara que a menudo se recoge en las mismas.

Palabras Clave: Argelia. Guerra. Jóvenes vascos. El semanario Herria.

Touts les jeunes Basques du Nord ont pris part à la guerre d'Algérie, dans la mesure où ils faisaient leur service militaire au cours de cette période. Loin du pays, mais nostalgiques de leur village. Ils envoyaient leurs nouvelles et leurs réflexions à l'hebdomadaire Herria, en prose ou en vers. Vous lirez ici des passages de ces lettres. Il faut souligner qu'ils écrivent dans une langue claire et riche.

Mots Cles: Algérie. Guerre. Jeunes Basques. Hebdomadaire Herria.

* Apezetxea. F-64240 Aiherra.

Algeriako gerla eta Euskaldunen arteko loturak ezagutzeko, bi iturri dauzka-gu. Lehenik han ibiliak diren lekukotasuna: 20.000 gazte ibili ditake han. Eta garai haietako kasetak: Felipe Maitek aipatuko duen *Gazte*, Eskualdun Gazteriarren hilabetekaria, Mixel Itzainak aipatuko duen *Eskual Herria*, eta *Herria*.

Herrian, Etienne Salaberryren artikulek, astekariaren barneko astekari berezi bat egiten zuten. Isabelle Ajurriagerrak ikertu du aste guzietan idazten zuen *Tribune Libre du prisonnier* saila. Berdin aberatsa, bada ere *So Egilea*, hau euskaraz.

Gaineratikoa badira Lafittek izenpetu gabe idatziak asteko berriekin, Algeriaz. Badira Frantsesezkoak, eta horietan zuen gehienik ematen bere iritzia. Jean Claude Larrondek aipatuko ditu zenbeit. Badira soldadoek bertsutan igorri berriak eta soldadoek igorri berriak, iritziak bai eta argazkiak.

Lafittek idatzi ditu 189 artikulua, soldadoek 130 gehi 53 bertsu sorta eta badira 66 argazki (500 bat soldadorekin).

Hor da ere *Eskual Herria* Mixel Itzainak soldadoentzat sortu zuen aldizkaria. Berak aipatuko du.

Guk aipatuko ditugu soldadoek *Herrian* agertu artikulua horiek. 1956an hasten dira. 1956an, 1957an, eta 1958an, 42, 34 eta 23 artikulua izan dira. Gero sendi da *Eskual Herriaren* sortzea: 14, 6, 5 eta 6 baizik ez da ondoko urteetan. Soldadoen artikuluetan badira berri xeheak. Batek eskatzen zuen: *otoi sorlekuko berri eta berriak bota ausarki: nor den sortu, nor den hil, nor norekin ezkondu, nori zer zaion gertatu, nun nolako bestak egin diren* 56.VII.5/1. Ainitzek ematen dituzte berekin dauden beste Euskaldun guzien izenak, beren berriekin Algeriako herrialdearen berri ematen dute, bai eta hango jendeetaz, gerla eta politikan sartu gabe:

Zonbait ilabete huntan Algerianoen erdian nago. Bizi dira leihorik gabeko etxola batzuetan. Etxola horietan ez da ikusten ez mahainik ez kaderarik. Gauaz ere lurrean lo egiten dute tapiza batzuen gainean.

Hemengo jendea ez da ekarria laborantzako oraiko gizonek pentsatzen dituzten tresna abilen ibiltzerat, eta ikusten ditugu hainitzak alhor iraultzen, gure arbasoak bezala, zurezko goldenabarrek.

Hemengo jendeak badu oraino basa aire bat: gazteak eta emazteak bereziki, soldadoak ikusi orduko gordetzen dira.

Gizonak faltsuak dira, hainitzak: aintzinetik elhe ederrak, eta gibeletik jukutria merke. Ez dute gure ber erlisionea ez eta ere gure ber beztimenta. Gizonek badituzte hamar emaztetaraino, beren erlisioneak permititzen baitio-te, eta badituzte familia haundiak, frangotan miserian.

Bertzalde hemengo gizonak ez dira hanbat lanean ari. Ez da beraz harritzeko miserian baitaude. Bertzalde leku idorrek dira hemen gaindi. Udan bereziki ez du lau bortz ilabetez euririk egiten: gauzak nekez heldu dira beraz.

Huntan finitzen dut aldi huntan, Eskual-Herrirat fite itzultzeko esperantzan.

J.A. PAGOLAR GAZTEA

Hona hamargarren konpainiako berri.

Zer pentsa gure hemengo manerez? Denetan lege bertsua da hain segur: beti kasu egin behar, gau ala egun, begia xorrotx, beharriak prunt, nahiz ez giren lehengo gerletan bezala. Hemen etsaia ez dugu sekulan ikusten, iduri luke bazterrak beti ezti daudela. Bainan, maluroski gutienik beha gaudelarik, entzuten dire han edo hemen, jende basa tzar horiek beren agertzeak egiten dituztela. Halere iduri zauku emeki emeki ezitzen hasiak direla behar ere. Guk ez ditugu felaga horiek biziki xekatzen, bainan Legione famatu hura hor da azkar horien kontra. Denek kuraia azkar atxikitzen dugu esperantxan zonbait denboraren buruan jinen girela plazerrekin etxerat gure itzuli guziak egini.

Mementoan, Tlemcen eko eskualdean gire trein bide eta ur erresalbu zain, herrixka batzuen ondoan. Hemen ez da lekuko jenderik baizik beren etxola txarretan, beren bizi molde hitsean. Funtsean, berek ikus bezate, ez da gutaz, arraza hori biziki axolatzen. Leku hau arras kalmea da, iduriz segurik, bainan pasatu ditugu berrogoi ta bost egun mendi zoko batian kasik galdurik

Beste hau Sahara desertuan da.

Galdeginen duzue nola bizi diren. Bizi dira tristezian «toile de tente» deitu kaiolen azpian xakurrak, oiloak eta denak barne berean. Zer jaten duten ezin erran: segur naiz ez dituztela hiru apairu egiten egunean...Ehun kiloko jende gutti ikusten! Hogoi eta hamar, eta berrogoi kiloko gehiago. Anitzek badituzte kamelu eta ardi tropak. Berek erran daukute irus direla. Baina aurtu urte txarra dutela, euria ez dutelakotz usu ikusi eta kamelu belarra ez pusatu eta kabalek ez janaririk. Iturriak ere zonbeit lekutan agortuak. Behar dute egin ez dakit zonbat bide kabalen edanarazteko eta uraren etxerat ekartzeko. Egun guzia emaiten inguruaren egiten. Beren lan guzia hortan dute. Uraren zilotik jalgitzeko eta etxerat ekartzeko, berek ahuntz larruz egin untzi batzu dute.

Huna ixtorio bat erraiteko zonbat trixtiak diren. Behin erosi dugu oilasko bat eta pagatzeko emaiten ginituen hiru 50 liberako. Gizonari etzakon aski: orduan gu ere xehez muntatuago larriz baino, eskaini dugu hogoi eta hamabortz liberako, eta gizona kontent bazuelakoan ahur bete bat sos, balio gutiko bainan harek nahi zuen kantitatea. Eta gu ere kontent ehun libera merkeago pagatu dugulakoan. Orain huntan finitzen dut aldi huntako nere parabola, erranez goraingintzi nere leku xaharrian utzi.

Eskual herri guziari eta partikulazki nere etxekeori.

P. AGUERRE Gabadiarra

Gerla ere aipatzen dute edo zuzenago errateko «operazioneak». Ofizialki ez zen gerlarik. «Pazifikazioa» zen aipu, bakearen egitea. Bakea egin behar bazen ez ote zen bakerik ez zelakotz, gerla zelakotz?

Algerian soldado

Huna zonbait denbora hemen girela «fellagha» deitu etsai horien kontra gerlan ari.

Ilbiltzen gira gau eta egun, kasik ezin hatzemaneko etsai horien ondotik, oihan eta mendi itsusi batzuetan gaindi. Egiten ditugu kilometrak eta kilometrak, eta behin edo bertez gertatzen bagira «fellagha» horien ondoan, zer tiroak, hilak eta kolpatuak! Ez dira gero nola nahi hatzemaite biligarro horiek!

Bainan zendako bilatzen ditugu «fellagha» horiek? Hainitz gaizki egiten dutelakotz. Hiltzen eta ebasten dituzte heier jarraiki nahi ez diren guziak. Soldadoen kamiunak atakutzen dituzte bidetan. Bertzalde, jenden lotsarazteko eta erakusteko hek direla Algeriako nausiak, jauzarazten dituzte trein bideak, zubiak, eta eletrika ala telefono hariak. Halako nahasmenduak egiten dituzte, nun hemengo jendeak ez baitakite horier ala frantseser duten hobe jarraitzea.

Fellagha horiek ez badira suntsiarazten, Algeria laster galdu da Frantziaren dako. Fellagha horien buruzagiak ez dira elgarren artean ados: usu elgar hiltzen dute.

Dena den, soldadoen bizia ez da libertimendu bat, eta ikustekoa da hemen zoin kartsuki otoitz egiten dugun ahal bezain laster geldi dadin gerla hau eta itzul gaiten urrundik hobeki maitatzen dugun Eskual-Herri paregabe hortarat. Eskualdun bat (56.III.01)

Hona zer zioen Xarlex Irisartarrak:

Duela bi hilabete arribatu ginen Alger deitu hirirat eta handik jo ginuen Bône-erat. Bi egunen buruan igorri gintuzten Laverdure deitzen den herrikka baterat, Tunisia-ko mugari hurbil. Ilabete bat pasatu dugu leku hartan. Segur leku kalmea, aire sanoa, osagarriarendako arradoa.

Orai Batna hirian gira. Hemen iguzkia bortitzago eta «operazioneak» usua-go. Nahiz gure kompania ez den sobera dorpea, izertaldi ederrik hartzen dugu mendi zoko horietan. Hainitzetan alferretan, zeren felaga famatu horiek ez baitira pikaren azken umeak.

Bi Hazpandarrek berriz:

Hemen gira desertuaren erdian. Posta batzuetan egoiten gira, tanta batzuen azpian gira eta beroarekin ezin egonez egin ditugu araba modan “mex-ta” deitu lurrezko barraka batzu. Halere ez trankil, fellaga jende horiek gauaz frango aldiz jin nahi bisita egitera. Hortakotz gauaz loa arin, gau guzietan edo bi gauetarik guardiako.

Partikulazki egarriarekin dugu sofritzen gure lekuan ez baita urik errana den bezela “que quand il pleut”. Ziterna batzuekin furnitzen gitzute bainan ardura zer da gertatzen? Biharamaneko, utsa. Beharrik ekartzen dauzkute ere zonbeit keza biera eta «de Crunch» deitu edari batzu. Bi Eskualdun gira bakarrrik eta biak Hazpandarrak maluruski ez biak arras elgarrekin. Asteaz aldi bat edo bietan elgar ikusten dugu kolpe baten edateko eta bi eleren eskuaraz egiteko...Goraintzi herritar guzier». Jean Macarie eta Marcel Higoa. - 56.IX.27

Ximun Aldudarrak xehetasun gehiago ematen digu delako «operazione' horietaz.

Gu soldadoak gabiltza nun zer hautemanen dugun, zonbat indar duen eta nuntsu dagoen. Ohartu orduko felagak holako tokian daudela, hasten ditugu "opération de sécurité et de maintien de l'ordre" deitu guduak. Bi hiru erreximendu eskuz esku emanik, zerkatzen ditugu felagen kantonamenduak. Inguru osoaren egiteko, hartzeko, hainitz neke, izerdi, pena, gose, egarri, iruzki dorpearen azpian egunaz bezela, gauaz. Jo aintzina, etsaia kortxelan eman artio.

Zerratua den tropa tentu gaixtoan dago, begiak idekiak, sua hazteko prest, nahiago du hil sumetitu baino.

Ezin bertzean gerla bizi hasten da; batek eta bertzeak ez barkatu nahi tiro errauntsetan obuza eta granada. Huna etsenplu bat. Oroit naiz partialier nintzan egun batez: guduaren ondotik kondatu ginituen 65 felaga gorputz; lur beretan ere galdu 10 lagun eta 20 bat kolpatu. Zer atsegabea!

Pasatzen da ere asko basakeria. Felaga armadak ez du erespetatzen zuzena, bere heinean kolpatuen biltzeko.

Elikoptero anbulantza zernaidei kurutze gorria, gerlako tresna bat bezela errausten dute ahal guzia. Ikusten da ere Frantses familiak preso egin ondoan urkatuz, bizirik errez, haur emazte ala gizon, Frantses ala beste, hobengabe gaixoak.

Otoitz bat dezagun denek batean, sua ezti dadien eta batean eta orok ukan dezagun bakearen goxotasuna.

Ximun Aldudarra
1957/10/03a

Bazen ere gerlaz beste ekintzarik:

Zer den gure helbidea hemen? Desertuan barna patruillan ibiltzea.

Iragan astean joan gira bortz egunentzat, guretzat galduak diren jenden bisitatzeri. Egin ditugu kilometroak eta kilometroak jende horien atxemaiteko. Biziki kontent ziren gure ikustea; ez beharba gure, bainan eskeintzen ginuen ogi bihi eta errisa parten hartzeko.

Ez da harritzeko onak direla erraten badu jendeak soladoetaz.

Erran behar dut hemen jendea ari dela lanean eta gurekin biziki gixakoak direla. Duela zonbeit egun, batek erraiten zautan: «Soldadoak guretzat onak dira». Desertuan izanikan ere baditugu behar ditugun guziak: ura nasaiki; badi-tugu ostatuak, bolanderak, epizierak; hemen Algerian diren soldado guziek hanbertzekorik ez dute.

Gerla zikina?

Soldado frantsesek egin ote dute basakeriarik? Lafittek ditu idatziak ondo-ko lerroak. Gure ustez, ez ditu behin ere eskuratu aipatzen dituen gutunak. Ez ditugu ikusten hori egin luketenak, beren balentrien berri ematen Herria kase-

tari. Horrelakoaka gertatzen zirela erraten zuten beste kasetek eta leluko zenbeitek. Gai minbera hori zeiharka hunkitzen du, entzuna lukeenea aipatuz.

Zonbait bakarren letrek pena egin daukute: “Plazerrekin miatzen dituztela horko etxeak, baita hetan zer har...”

– “Dudamudako jende guziak hiltzen dituztela denak arraza beretik direlakotz...” - ”

Ahatzeak bezalako oihuak jali ondoan, azkenean, sofriaraziaren bortxaz, aitortu duela.” - “Emazteak hor merke direla”

Holako aitormenak zonbaixka dira bakarrik, baina hek ere sobera.

Ez zirezte hortakotz joanak horrat, adixkideak. Eskualdunak nun nahi izan gaiten, ibil gaiten funtsez, kakoleriarik gabe.

Eskual-Herriak, kazeta hunen bidez, dautzute orori goraintzi osagarri on, eta “gauden beti gu”, zuek hor, eta gu hemen!

56/08/09

Ez dugu odol-itxurtze haundirik ikusi; baina halarik ere fanfarronkeria guti bazterretan. Kasu egin behar da ba mama gorriari, baina gabea ere beltza da, eta ura xuria. Hemen etxe edo kaiola txarren miatzen ez dugu denbora haundirik galtzen; aberastasun guti da heien barnean.

Hemengo jendeaz ez dut deus erranen; ez da guri heien jutatzea; badugu segur ainzindaririk aski lan hortako

Beste bat luzeago mintzo da

Duela zonbait denbora «zerbitzari» sinatu artikulua batek ez dauku sobera plazer egin. Hemengo Eskualdun zonbaiten solasak omen zituen kondatzen.

Hemengo jende zonbait lapurtzen omen ditugu aberatsak direlakotz. Zer, bi tapizen jabe direlakoan? Eskual-Herriko buhamiek ere aberatsago dituzte beren etxeak. «Caid» horien etxeak ba aberatsak dira eta oraino ez oro!

2º Araba guziak hiltzen ditugula? Ez gaixoa ez, hori ez da haizu arrazoin haundirik gabe. Guk ere kontzientzia badugu. Hobendunak poliziaren eskutan emaiten ditugu nun ez gaituzten tirokatzen.

3º Hemen emazteak merke direla? Eni aldiz iduritzen Eskual-Herriko azeriak bezain basak direla. Delako etxe berezi batzuetan badira ba merke... sosa-rekin. Eskualdun gutti joaiten da heietarat.

Guk nahiago dugu pinta bat arno erosi eta edan, ogi eta gasna puska batekin ahalaz!

Eskualdun bat 1957/04/11a

Xarles Irisartarrak idazten zuen

Ez dut artikulua egiteko usaiarik, baina halere nahi ditut bi hitz agertarazi Aljeria zoko huntarik ene lagun eskualdun guzien izenean.

Hamar bat bagira elgarrekin konpainian, gehienak «rappelatiak».

Huna gure eskualdun multxoaren izenak: Rousseu, Orabé, Etchebarne eta Etchemaitte, xuberotarrak. Labrouche, Aiheratarra, Zuelgaray eta Lapeyrade Kanboarrak. Jean-Battiste Etchegaray Behauztarra eta Dominique Dindart Donapaleutarra, hauk biak ene zerbitzu denborako lagunik oberenak eta aldi huntan ere elgarrekin girenak. Dominique aita familiako gaztea, hamabortz egun goxo bere lagunaren eta Maritxu ttipiaren ondoan pasaturik berritz gure artean duguna.

Iragan bi hilabete horietan ohartu gira gure Eskual-Herri paregabean zonbat okupatzen ziren gutaz. Herri guzitan egin diren eske eta bestak gure fagoretan. Duela zonbeit egun errezebitu dut kolia bat.

Idekitzen hasi orduko, ikusten dut... «Irrisarriko bestetarik zuretzat ere oroitzen bat... Gazteak». Ene plazerra bazen zerbait, eta ene lagunekin iker aldi bat eman ginakon, gogorat heldu zauzkidala herriko gazte lagun guziak eta heien sustatzaile eta buru den jaun bikarioa.

Ukaiten ditugu ere kaseta zonbeit: La Croix, Basque-Eclair eta Herria, eta pentsatzen ahal duzie gure plazerra alde hortako berrien leitzen. «Herria» huntan ikusten ditugu asko soldadoren berriak eta gero erreferan kontseilu on batzu.

Urrun gira gure etxetik, bainan gure eskualdun fededungoa azkar daukagu.

Badugu xantza artetan bederen igandetako mezaren entzuteko, eta erran behar da eskualdunak hortako beti lehenak direla.

Ene hitza bururatzean milesker haundi bat igortzen dugu eskualdun guziek, gure fagoretan egin obretan beren borondate ona erakutsi duten guzietan, eta esperantza dugu larrazken hortan berritz itzuliko girela osagarri onean gure Eskual-Herri maiterat.

Xarlex irisartarra
1956/09/06a

Hiru Bidarraitar kolpatuak izanak ziren jadanik 1960an. Hirugarrena, Albert Parachou Saldaineko semea. Beste bi aldiz kolpatua izan behar zuen honek berak.

Algerian kolpatuak

Berriak izan ditugu Albert Parachuren ganik. Hamabortz egun bakarrik Afrikan zela eta «Les Aures» tokian gudukan arizan behar izan du, hak eta bere lagunak; zonbeit hunkituak ere izan baitire. Albert-i bala batek zangoa aldian beste pasatu dio, beharrik zainik eta ezurrik jo gabe. Ospitalean egonaldi bat egin eta, uste zuen Zaldainian itzuli baten egitea, bainan han berean itsas bazterrean pausa toki batean ezarri dute.

Denbora jin, denbora joan, hirugarrena da gure herritaretarik kolpatua izan dela, beharrik ez sobera bortizki. Mementoan hogoi gazte soldado ditugu, horietarik Gratien Labat ez duela ainitz, permisione tarro batekin familian zena.

Muskildi Soldadu hila

Jentia harriturik zen aitzineko ostiralaz geroz, jakinik Jean Sallaberrem-borde, Etcharteko semia, destorbuz hil zela Algerian. Bena hilberriak etzian xehetarzunik emaiten. Zer agitu ahal zen? Hil-berriaren mezperan, letea bat heldu zeien. Erraiten zeien harek etziala lanjerik, bureo batetan ari beitzen izki-bu lanetan.

Kartieleko apez bat han bada omonier kargan. Peninou jaun apeza, Uharte-Amikuzeko errejentaren semia. Harek izkibatu lehen lehenik berrien emaiteko. Erran du astizken arristitan hirur orenen altian, ustegabetatik ehoik izan dela gaixo soldadua: lagun bati, arma eskukatzen ari zelarik, tirua partitu zaio eta hunki du gure herritarra, lau minutaren buruko hilik baitzen. Omonier apezak dio,untsa ezagutzen ziala gaixo hila, biga-bostetan alkharrekin elestan egonik goxoki. Zonbait denbora lehen, deboziona egi-nik zutiala, kofesaturik eta komuniaturik, mezperaguan orano meza entzun ziala. Malurra jakin bezain sarri, jin zeiola eta eman absuluzioa eta olia-dura

Irakurtu ditugun lerrorik bortitzenak ez dira soldado batenak, baina Algerian egonik, gerla baino urteak lehenago, Baionan finkatua zen Euskaldun ezagun batenak. Algeria Euskal herriari konparatu duen artikulua bati ematen dio erantzuna.

Azkenekotz, uste dut zure konparazioak fitsik ez duela balio.

Eskualdunek eta Frantsesek ez dute mintzaira bera. Baina badituzte soineko berak, muble berak, gauza gehienak berak eta oroz gaineratik erlijioa bera. Usu badira ezkontzak Eskualdunen eta Frantsesen artean.

Eskualdunen eta Frantsesen artean ez da arrola ttipi bat beizik. Aldiz Arabeen eta Frantsesen artean, leize bat ezin tapatua.

Ez ezkontzarik heien artean, ez xoilki erlisionaren gatik, baina ere bai ohi-duren, hazkurriaren, jitearen, Araben odol ustelaren eta usainaren gatik. Uste duzu ene haurrak igorri nahiko nintzela eskola arabera, mahometano errent batekila, Araba ttipi zorritz eta zifiliaz betekin, egun oroz heien erraz sofritzekoz?

1942ean, Amerikanoak Algerian etorri zirenean, konprenitu nuen herri hura galdua zela guretzat. Malurusi ez nintzen tronpatzen.

Beraz 1945ean sorlekurat itzuli nintzan, nere emaztearekin eta nere seme han sortuekin; erraiten baitzuten zoroa naizela, ofizio on bat utzirik “famiaren krakoan” bizitzeko! Hala errezebituak dire orai Algeriako Frantses gaixo arrazoinekin Frantziara itzultzen direnak.

A.T. Baionesa 1961/06/15a

Bururatzeko hona lerro hunkigarri hauek:

Eguberri

Azken hitzak zuer, Algeriako eskualdun gazte lagunak. Hirugarren Eguberri urtatsak pasatuko ditugu armadan... Duela bi urte hiru egun kaserna nintuen, pentsa zazue nolakoa zitaken... Xaz egun guzia guardian pasatu nuen «mexta» baten kaskoan, eta horra nun hirugarrena, agian azkena, pasatzen dutan, erdi trixte, erdi alegera; Jesusen sortzeaz oroituz, bainan Killari pentsatuz.

Hamar bat egunen buruan utziko dut, hemezortzi hilabete gozatu edo madarikatu «djebela» eta goxatuko Eskual-Herria maitea. Ez dautzuet kafarrik eman nahi, harazue kuraia, ikusi ditut nik ere bakarrak partitzen, bihotza auskitzen zautatela... ene partitzia hurbilago eta ausikia handiago...Lentsun eta urtxoak aintzinduko ditut eta erranen zuen denen partez goraintzi zuen fami-lieri, maite ditut zuen guziera bai eta Eskual-Herriari. Uzten zituztet, bainan ez ahanzten. Eta ondoko egunetan ere plazerrik handiena litake zuen berrien ira-kurtzea...!zan untsa!.. Urte on!.. Kuraie eta osagarri on!... eta...IKUS ARTE

1957ko abendoaren 24a , Marcel RECALDE Hazpandarra

Jasta eman dizuegu. Artikuluen mamiaz aparte, ohartu zarete zenbeitek biziki euskara ederra dutela. Entzun dugu, Algerian sortu dela Iparraldeko aber-tzaletasuna. Egia ditek bakar batzurentzat. Bainan gehienetan, Algerian ibiliek ez dute berek hoin ederki mintzo zuten euskara beren haurrei irakatsi. Gerla gehienen ondorio bera izan du Algeriak. Zerbaiten alde borrokatuz, sofrituz, gehienetan, zer-bait horrekin bat egiten duzu. Frantziaren alde pairatu dute Algerian. Frantziari sekulan baino lotuago itzuli dira etxera. *Enbata* sortu zelarik batere ez zuten honen alderdia hartu. Euskal Herriko felagha berrientzat hartu zituzten abertzaleak.

Hemen ematen dugu HERRIA astekarian Algeriako gerlaz aurkitu duguna. Badira soldadoen argazkiak (67 argazki, 450 bat soldadorekin!). Bertsuak (45). Soldadoen eta beste zenbeiten artikuluak (96). Gutik dituzte beren deituraz izen-petu; gehienetan izengoitia edo izena bera. Zenbeitentzat... ez daiteke jakin sol-dado batek idatzia den ala hemengo norbeitek. Lafittenak, batzu izenpetuak, bereziki iritzi bat ematen zuelarik, eta hauek gehienetan frantsesez dira, besteak ez izenpetuak, asteko gertakari baten berri ematen duelarik.

Badira laburrak, badira luzeak. Soldado zenbeitenak hiru, lau zatitan agertu dira. Soldado horietan badira oraino klasak egiten ari direnak Frantzia edo Ale-manian, Algeriara joan aintzin. Beste batzu etxera itzuliak. Batzuk ala bestek, gogoa han daukate. Soldado artikuluetan eman ditugu bakar batzu, hemengo norbaitek idatzia, soldado ez izana gatik, hala nola “A.T.” batenak, bainan hau Algerian egona zen eta bazekien hango berri.

Soldadoen artikuluak urtu dira *Eskual Herria*, beren agerkaria, Mixel Itzainak sortu duenetik: 1956an 34 izan dira, 1957an 31 1958an 20, 1959an 14 eta gero hamarrez petik. Aldiz, 1956ean, hazaroko 11an berriz agertu baitzen GAZ-TE *Euskaldun Gazteriaren* hilabetekaria, ez du ondoriorik izan horrek HERRIA-rentzat, nahiz hor ere agertu diren ala bertssu, ala artikulu, bainan artikulueri doakienaz, kasik beti mamitsuak.

1954

04.11 Omia saindu odoltsua

1955

05.26 Afrikan guduak gero eta gehiago

06.30 Afrikan deus onik ez

09.22 Zertako soldadoak Algerian

09.29 Algeriako nahigabeen ondorioz

10.13 Faure jaunaren politika deputatuek onartua Burrustan

1956

12.09 Tomateak Guy Molleteri

02.16 Afrikatik hunat eta

Il faudrait 500.000 hommes. **Jean Toulat.**

03.01 Ipar Afrikako gerlak Egypton izaki bere iturburua (**Algerianoa**)

Algerian soldado. **Eskualdun bat**

03.08 Ipar Afrikako eztabadak nola ezar haxean

Ez erran bat ala bertzea, errazu biak elgarrekin. **M.R.**

03.22 Lehenbiziko urratsak Algeria atxikitzeko.

Frantziako armada zertan den

03.29 Marokarat abaian. **Jean Etxamendy** (B)

04.05 Soldadoak Algeriara

04.12 Algeriako berriak

Nedromako gudua

04.19 Guy Molletek erran du

04.26 Algeriatik berri on guti

05.03 Hola deno ez daukagu gudu hau bururaturik

Parisen 50 kolpatu

05.10 Algerian soldado **Negueloua R.** (B)

05.24 Afrikako sarraskiak

05.31 Algeriako soldado zonbaiti. **Laco apez**

06.07 Algeriatik. **André Ouret**

argazki (21 soldado)

RIFen ginelarik. **Jean Etxamendy.** B

06.14 Soldado gazten alde (JAC)

Laxague

Algerian, Elissagaray jeneralaz

06.21 20.000 gion Lurden. **Soldado sartu berria**

06.28 Soladogotik bi pertsu (B); **Errola**

07.05 Gure soldadoekin **FM eta PE**

Herria 300 Ftan

Algeriako soldadoen berri. **EG**

07.12 Garaztar soldadoak

07.26 Euskal Herria eta Ipar Afrika

Marokatik. (B) **Jean Etchamendy.**

Algeriatik mila goraintzi. **Negueloua R.**

08.02 Ararteko baten beharrik ba ote duen Frantziak. **Manex**

Soldado batzuen berriak. **Ainhoarra**

Soladodentzat (300i igortzen, 28 herri)

- 08.09 Afrikako soldadoeri
- 08.16 Ipar Afrikan bakea ez heldu (20 hil, 21 preso)
Afrikako kantua (B) **A. Bidart**
- 08.23 Iholdiko haur bat mintzo Algeriatik
Garaztar batek Algeriatik. (B) **Negueloua**
Eskualdun soldado batzuen berriak. **Gabadiarra**
Marokako berri. (B) **Piarres Zuraidarra**
- 08.30 Hamargarren konpainiatik
argazki (17 soldado)
Algeriatik. **Heietarik bat**
Zonbait berri. **Arnaud Tipy**
Argazki (11 soldado)
- 09.06 En écoutant le maréchal Juin. **Pierre Lafitte**
Guk ere bi hitz. **Xarlex Irisartarra**
Argazki (3 s.)
Felagen lana
- 09.13 En attendant la paille humide des prisons. **Pierre Lafitte**
Afrikako soldadoeri. **Lehengoa**
- 09.20 Saratar eta Senpertar bi soldado. **Saratarra**
Hapandar soldadoekin **JD**
Argazki (10 s.)
Eskualdun soldadoa. (B) **Donaixtiarra**
- 10.04 Alger hiriko igande itsusia
Lacoste ministroak berri onak Algeriatik
Soldadoen berriak. **Eskualdunak**
Argazki (4 s.)
Ihardespen batzu. **Joanes M.**
Guk ere bi hitz Algeriatik **MD**
Afrikako permiolariekin. **Lehengoa**
Ortaiztar bat kantuz. **Ortzaiztarra (B)**
- 10.11 Afrikako soldadoekin. **Lehengoa**
2 argazki (15 + 13 s.)
Algeriatik. **Soldado bat**
- 10.18 Infirmerian (B) **Uhalde**
Bazkal ondoan (B) **Etchamendy**
- 10.25 Ben Bella bahitua
Athos itsas untzia 70 tona armarekin
Eskual Herria eta Algeria
Algerian soldado. **Garaztarra**
- 10.27 Zer dira Algerianoak. **JA Pagolarra.**
Argazki (8 s.)
Guk ere gure xokotik. **Pierre Mugertarra**
- 11.01 Joan den asteko gertakarien ondotik
Gobernuaren deia Algeriako jendeari
Eskualdun bat mintzo desertutik. **P. Aguerre**
- 11.08 Algeriatik etxera buruz (**10. konpainia**)
2 argazki (6 eta 3 s.)
- 11.15 Udazkena Algerian. **Uhalde**
Urruñako soldadoen berri (60 armadan)
- 11.22 Afrikako soldadoeri. **Lehengo bera**
argazki (13 s)
Soldado kantua. (B) **Xarlex Iholdiarra**

- Oi zorte dorpea (B) **Eihalartarra**
Bi Garaztar Marokatik **ER eta GB**
11.29 Marokan soldado. (B) **J.I. Saratarra**
Beha kolpe bat lpar Afrikari
- 12.06 Algerian felagen azken uztarrak direa
Colomb Becharretik kantuz (B) **Joseph Olaizola**
12.13 Eguberri saildu. (B) **Xarlex Iholdi**
Marokatik (B) **Etxamendi**
Afrikatik lehenegoari. **Oraiko bera**
Nemours eta Etxamendi (B) Arizkundarra
12.20 Argazki (1)
Iholdi: ohore
12.27 Soldado aintzindari. (B) **Errola**
- 1957**
01.03 Algerko asaldua
Kantuz nahi dut mintzatu. **A Bordagarai** Pagolarra (B)
01.10 Jeneral bat preso
Moderna izana gatik. **Errola** (B)
01.17 Bakotxari berea. **Eskualdun gazte gaitzitua**
01.24 Euskadun neska bat Bordelen. **Jean Etxamendi** (B)
01.31 Algerian eta Parisen poliza barrandan
- 02.07 Soldado altxatze
02.14 Laxague ohoretan
Afrikan soldado direnei
02.28 Soldado Eskualdun batek Frantziatik. **Errola**
Marokatik, **J Etxamendi** (B)
- 03.07 Presondegitik Ben Bella
03.14 Afrikako soldadoer
03.21 soldadoen permisionez
Xori ahula **J. Etxamendi**(B)
03.28 argazki (5)
- 04.04 Afrikako soldadoeri
04.11 Jende hiltzaleak girea? (56.8.9?) **Eskualdun bat**
Soldado biziaz **J.P. Luro** (B)
04.18 Algeriako soldadotan badirela kriminelak?
04.25 Soldadogoak ez du iraunen 24 hilabete baizik
Alger-ko Eskualdunak. **Piarres**
- 05.02 Gure bizi moldea. **Jo. Olhaizola** (anbuzkada)(B)
05.09 Soldado gaiak Baionan
05.23 Lau eskualdunek Afrikatik
Marokatik kantu amen bestakari. **M Etxamendi** (B)
Toujours a propos de cette guerre d'Algérie. **Goratik**
Algerianoak hilak
05.30 Zer dire gure egunak. **Apezgai lagunak**
Ene soldado denboraz. **Louis Alkat** (B)
Eman ta zabal zazu munduan fruitua: Soldado baten gogoetak
Jacques Uronjo
Algerian hilka

- 06.06 Algerian frantsesen etsaiak gero eta bortitzago (Melouza)
- 06.13 Hil ofizio hunkigarrai. Apezgai aintzindaria. Ozaze
A propos del'Algerie. Afrikano ohia
Ez gira alderdikari. Gauden beti hein batean. **P. Lafitte**
A quelqu'un qui n'est pas fou. **P.L.**
Hil ofizio hunkigarria (Ozaze)
A propose del'Algérie. **Afrikano ohia**
A propos del'Algerie **Goratik**
- 06.21 Afrikanoen leloa. **Lehengoa** (B)
- 06.27 A nos lecteurs; Auziaz. **P. Lafitte**
Bertze soldado baten gogoetak. **Marcel H.**
Muskildi. Berri txar
- 07.04 Zozializtak eta Algeria
Soldado hila Muskildin
- 07.11 Algerian auzia. **J.D.**
Gobernu algeriano librorik ez
Soldado batek herriari. **Errola**
Algerian soldado. **Pordoy, Irigoin** (B)
- 07.18 Les maires de l'Algérois sont avec Herria. **Pierre Lafitte**
Soldadoen berriak. **Mendiando**
Toujours à propos de l'Algérie. **Goratik**
- 07.25 Soldado batek Alemaniatic **H.P.**
- 08.01 Balakite zer ari diren!
Soldado batek Alemaniatic. **H.P.**
- 08.08 Algeriatik. **Eskualdun seme bat**
Toujours à propose d l'Algérie. **Goratik.**
- 08.15 Marokatik zombait berri. **Joseph Gonzalez** kanboarra
- 08.22 Algeriako gerlaz. Soldado: **Antton**
- 08.29 Algeriako gerlaz. **Antton**
- 09.05 Partitzeko tenoria. **Jan Battitt**
- 09.12 Argazki (4)
Algeriako gerlaz. **Antton**
- 09.19 Algeriako gerlaz. **Antton**
- 10.03 Frantzia eta Algeria ateka gaixtoan
Afrikatik zer diogun. **Ximun Aldudarra**
- 10.17 Europatik Afrikara. **Bizkaixipi**
Lettre ouverte à M. Delaunay. **Bizkaixipi**
- 10.24 Europatik Afrikara **Bizkaixipi**
- 10.31 A Bizkayxipi. **Mayi Kattalin**
Algeriatik. **G. Etxeverri** Azkaindarra
- 11.07 Udazkena Algerian. **U. Iholdiarra**
- 11.21 Tuniziar eman armak.
argazki (14)
- 11.28 Algeriako auzia
Algeriara soldado. **Errola**
- 12.12 Biba Urruña; **Bizkaixipi**
argazki (4)
- 12.19 Algeriako soldado laguneri oihu. **Michel**

1958

- 01.02 Oi Eguberri gaua. **M Récalde**
01.16 Colomb Bécharetik. **Garaziko xori bat.**
01.30 Alderat bozkatu dute Algeriako legea
Bazinakitena. **Bizkaixipi**
- 02.13 Sakiet
02.20 Algerian 1040 jazarle hil, 158 preso 8 egunik barne
- 03.06 Beltzak eta Eskualdunak. **Bizkaixipi**
Frantzia guzia gero eta kexuago.
03.27 Non lieu
- 04.03 argazki (9)
Algeriako laguneri. **Jean Etxamendi** (B)
04.17 Bakea noizko. **Bixente**
argazki (2)
04.24 argazki (9)
- 05.08 Denak leher egiteko irriz (**Errola**)
Hil. Mitikile
05.15 Afrikatik. **Errola**
Massu-Salan
05.22 Aste lazgarria Frantziarentzat
05.29 Face aux événements. **P.L.**
Algeria-tik/ **Simon Necol** Pagolarra
- 06.06 Algerian atsegin eta mutur
Soldado bertsulariak. **Panpili seme**
06.12 Algeriatik lerro zonbait. **Gabriel**
06.19 Gure soldadoekin. **Irakurlea**
- 07.03 Algerian bigarren aldikotz
Afrikano. (B)
07.10 Eskualdun soldadoeri. **Afrikano ohia**
07.17 Argazki (10)
07.24 Bellounis hil
07.31 Algeria zer den. **Mikel Ertoranekea.**
Goraintzi Eskualduneri. **Eskualdun bat**
argazki (4)
- 08.07 Algeria zer den. **M.E.**
08.14 Algeria zer den **M.E.**
argazki (2)
08.28 Algeria zer den. **M.E.**
erreferendum
- 09.04 De Gaule eta Algeria
09.11 Nor nola mintzo diren
Elizak ez du ez baietzik, ez ezetzik manatzen. **P. Lafitte**
- 10.02 Erreferendum E Herrian
10.09 Constantineko mintzaldia

- 10.16 argazki (2)
Jeneralaren xedeak
- 10.23 Algériens et indigènes **A.T.**
Esperantzaren garra. **G.H.**
- 10.25 Algeriako gobernu berria
- 10.30 Algériens et indigènes **A.T.**
- 11.06 Soldado eskualdunen ohoretan kermeza
- 11.13 Algerian deputatu gaiak eskas
- 11.27 Aments ederra. **René Irigaray** (B)

- 12.04 Algerian Bozkak
Zortziak bat. **Dq Hargindeguy** (B)
- 12.11 De Gaule Algerian
- 12.18 Soldado baten berri **D.I. erizaina**
- 12.25 Delouvrier Algerian
argazki (1)

- 1959**
- 01.15 De Gaulen kontrako golistak
7000 preso libre

- 02.12 Debré hixtukatu Algeren

- 03.12 Herritik urrun. **P Barnetxe** (B)
- 03.19 Egia ez aditu nahi

- 04.02 De Gaulen hitzaldia
- 04.09 Nola buru Algeriako auzia **R.F.**
- 04.23 Colomb Béchareko berri. **H. Sabarotz**
- 04.30 Soldado diren apez aintzindariak mintzo
Sorhaioak
Boufarik. **G Moustiratz** (B)

- 05.07 DG eta Algertarrak
argazaki (4)
- 05.21 Constantinoi xokotik. **Lauak** (B)
argazki (2)
- 05.28 Urtxintxak. **André D.** (B)
Bakea heldu dea

- 06.18 Deputatuek algeriaz

- 07.02 Algeriatik **SMP** Donamartiri (B)
Eskual Herria agerkaria. **Michel**
- 07.16 Algeriko integrazineak salbatuko ote du E. Herria? **M.L.**
Argazki (10)
- 07.30 Neor ez kontent

- 08.20 Norat ari gira
argazki (2)

- 09.03 De Gaule Algerian
Jazarleen armadaz
- 09.17 argazki (9)

10.01 FLN delakoaren ihardespena
10.08 Beti Algeria hori
10.22 argazki (8)

11.05 Gerlaren finitzeaz
11.19 Eskuindiarrek oihuka
11.26 FLNen ihardespena

12.10 Gure soldadoez
12.31 1959ean Algerian gertatuak

1960

01.07 Libratze (Henri Garat Barkoxtarra)
01.14 Gaizkia beti gaizki (Croix Rougen txostenetik)
01.28 27 hil 135 kolpatu (barrikadak)
soldadoak kantuz. **Eyheraburu** (B)
DGk erdi amor, erdi larderia

02.04 DGek gaina hartu Ipar Afrikan.
02.11 Bazterren garbitzeko, bai Frantzian, bai Algerian, auziak.
Gobernua arraberritu dute
02.18 Algerian
02.25 DGek nola nahi luken Algeriako auzia xuritu

03.10 Luze izanen da
03.17 Ez ginauden horren beha
03.24 Denbora noren alde. (**Duda muda**)
03.31 Maite Bati. **H.C. soldadoa** (B)

04.04 Pantxua joan eta. **Lagun bat**
04.21 Algerian hotz
CFTC eta Algeriako gerla
argazki (11)
04.28 agazki (13)
François Mihuraren ehorzketak

05.05 argazki (16)

06.02 argazki (4)
06.09 argazki (2)
06.23 Hautsi mautsi. FLNek baietz
06.30 Melun hiriko aintzin solasak

07.07 Ferhat Abasek ez jin nahi
Algeriatik
argazki (7)
07.14 argazki (4)
Hiru maila

08.04 Soldado eskualdunak eskuaraz (eskuz esku 40 izen)
08.18 Bi soldado hiltzera kondenatuak
08.25 Afrikako gure soldadoekin
argazki (4)

- 09.01 Saharatik Saharaz **E Erretzu** (B)
 09.08 De Gaule thematua
 09.15 Meni baten bila
 09.22 Salan De Gauleri aiher
 09.29 Obeditze horrek lanak emaiten
- 10.27 16 senatur Algerianok mintzatzea eskatzen
 argazki (4)
- 11.03 Marokako Mohamedek
 Kanbiamendu Algerian
 Barrikaden auzia haste.
 11.10 DGen solasak
 13 deputatu musulmano
 argazki (12)
 11.17 Juin eta Salan
 Hazilaren 11 Algeren
 Xerrandari goraintzi **Bereterbide** (B)
 11.24 De Gaulen xedeak.
 17 zenator arabe
 argazki (8)
- 12.01 Mekanikaren abiadura
 12.08 Lagailarde ihesi
 erreferenduma
 12.15 DG Algerian
 DG Parisera sartu
 90 hil, 1500 kolpatu Alger hirian
 12.22 Algeriako gertakarien ondoan
 erreferenduma
 argazki (5)
 12.27 erreferendum
- 1961**
 01.05 Bai ala ez
 Algeriako bidean **Irisartarra** (B)
 01.12 Baia nagusitu
 argazki (16)
 01.19 17.400.000 bai, 5.800.000 ez
 01.26 Algeriako bakeari buruz
- 02.16 Fehrat Abbas
- 03.09 Solasak noizko
 Barrikadetako auzia bururatu.
 Algeriako poliza
- 03.16 Algeriako auzia
 03.30 Evianen solasak apirilaren 7an
 Ferhat Abbas
- 04.06 Evianeko solasak
 04.13 Plaztikazaleak
 DGen mintzaldia

- 04.20 DG eskuzarta eske
04.27 Algerian berriz jazarkundea
- 05.04 Jazarkundearen biharamunak
05.11 Alger miatu
DGen mintzaldia
argazki (5)
05.18 Evianeko solasak
Maiatzaren 13ak ez du nahasmendurik eman
05.25 Evianeko solasak
Orai ere lehen bezala? **Xalbat gazte**
araben tropak
- 06.01 Evian eta Eskualdunak. **Biskaixipi**
argazki
06.08 Evianeko biltzarra
Challe eta Zeller
06.15 Evian ajornatua
Evian et Eskualdunak. **A.T.**
06.22 Evianetik lekora
argazki (7)
06.29 Plaztika Baionan eta Biarritzen
- 07.06 Evian
argazki (7)
algeriatik bertsuak **Mixel Brust** (B)
AT Baionesari. **Bizkaixipi**
07.13 argazki (8)
Abileziak ez du beti ondorio onik
07.20 Beti bera, beti beretik
- 08.10 Ipar Afrikako gertakariak
08.31 Fehrat Abbas baztertu
argazki (14)
- 09.07 Plaztikarien auzia
09.14 DGen kontra atentatua
09.21 Algeria gero ta nekeago
Hiltzale handi mandiak
Ben Khedda
argazki (4)
09.28 Algeriako auzia
- 10.05 DGen predikua
10.12 Frantzia duda mudan
Rafa jenerala
10.19 FLN/OAS
argazki (3)
10.26 Parisen 20.000 arabe
- 11.02 Lagailarde
Ben Khedda
argazki (3)
Pelloren auhenak H.C. (B)

- 11.09 Araben mintzaire berria
39 preso Afrikano ihesi
- 11.16 Ben Bella gose greban
- 11.23 FLN-kilako urratsak
Algeriatik. **Larroquet** (B)
- 11.30 Denbora galdu
- 12.07 DGen alde onak
Algeriatikako letra. **Adixkide bat**
- 12.28 argazki (10)
- 1962**
- 01.04 Algerian zalaparta, tiro eta sarraski
Presidenta mintzatu
- 01.11 Algeriako manerak
- 01.18 Soldado. **Gilbert Etcheberry** Ahatsa (B)
- 01.25 Frantzia duda mudan
argazaki (2)
- 02.01 Soka tinkatu
argazaki (5)
- 02.08 DG dena esperantza
Parise zaindua
soldado batek bi bertsu **R. Ondicol** (B)
- 02.15 8 hil 240 kolpatu Parisen
geroari buruz. **BS** (B)
- 02.22 Bakeari hurbiltzen?
- 03.01 Algeriako bakea?
- 03.08 Algeriako bakea
- 03.15 Algeriatik sartzekoen fagore.
argazki (16)
- 03.22 Evianeko akordioak
argazki (7)
- 03.29 referendum
Babel Ouedeko gudua
argazki (4)
- 04.02 Fares gobernu buru
baia nagusi
argazki (8)
- 04.12 Frantses gehienek bakea nahi
- 04.19 Jouhaud hiltzera kondenatua
- 04.26 Salan preso
argazki (7)
argazki (3)
- 05.10 Algerian sarraskiak
- 05.17 Hautatu behar da
argazki (6)
- 05.24 Nor da Salan
Bi jeneral etxera
- 05.31 Salan kondenatua
Algeriatik jendea joanki
argazki (3)

- 06.07 Politika pondu zonbait
 06.14 Jouhaud
 Zango beltzak
 06.24 Hitz baketsuak
 06.28 Bakea nekez
 argazki

 07.05 Frantziaren menetik
 Araben arteko eztabadak
 Soldado baten gogoetak. **R. Ondicol** (B)
 07.12 Algeria bere gain
 07.19 Algerian denak heintsu berean

 08.09 Ben Khedda eta Ben Bella akortu
 08.16 Dirua Algeriari
 argazki (7)
 08.23 Bozak Algeria
 argazki (7)
 08.30 atentatua DGen kontra
 Algerian zibilak eta soldadoak elgarrekilan
 Saharatik. **G. Etxeberri** (B)

 09.13 De Gaulen hiltzaile gaiak preso
 09.27 Algerian bozak

 10.04 Algerian lehen gobernua
 Algeriatik killaren beha. **Darguy** (B)
 12.06 Algeria diru galdez

Herrian agertu artikulua urteka

	1954	55	56	57	58	59	60	61	62	<i>orotara</i>
Lafitte-n artikulua	1	5	33	27	23	21	43	55	52	260
Soldado artikulua			34	31	20	4	2	5		96
bertsu			18	8	5	5	4	4	6	45
argazki			13	4	10	6	12	10	12	67